

Teknologiaren erabilera eskoletan: Iraultza hezkuntzan

Azken urteetan teknologiaren erabilerak gorakada nabarmena izan du hezkuntzan. Eta eztabaida handiak piztu ditu. Onuragarria al da benetan? Edo oztopo bat da?

Teknologia gero eta presenteago dago eskoletan orduan eta gehiago erabiltzen dira ordenagailuak, tabletak eta plataforma digitalak ikasgeletan; irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua errazteko. Horrek informazio asko eskura izatea ekartzen du, ikasleen autonomia handitzen du eta etorkizunerako lagungarria izan daiteke. Hala ere, desabantailak ere badaude, hala nola, distrakzio handia, mendekotasuna eta gehiegizko erabilera eta eduki desegokien erabilera. Artikulu honetan, teknologiak hezkuntzan duen eragina aztertuko dugu, haren onurak eta kalteak azpimarratuz.



Hezkuntzaren eraldaketa digitala


Iraganean teknologiaren erabilera asko ugaritzen ari zen; hala ere, baliabide teknikoek gorakada nabarmenena, Covid garaian hasi zen. Bakoitza bere etxean egotera behartua zegoenean, bideodeiak egiteko plataformak oso ohikoak bihurtu ziren; izan ere, klase birtualak egitea zen irakaskuntza jarraitzeko aukera bakarra. Garai hartan, oso erabilgarria izan zen. Behin normaltasunera itzulita ere, pandemian teknologiak izan zuen gorakada ez zen moteldu; aitzitik, eskoletan liburuak ordez plataforma digitalak erabiltzen jarraitu da.

Izan ere, teknologiak ikasteko metodo ugari eskaintzen ditu klase barnean ordenagailuak, tabletak etab. erabiliz: joko digitalak, bideoak, Google Classroom, Kahoot edo Duolingo bezalako aplikazioak, besteak beste. Tresna hauek ikasleentzako ikasketa-prozesua arinagoa, interaktiboagoa eta erakargarriagoa bihurtzen dute.

Hori gutxi balitz, komunikaziorako oso erabilia da gaur egun, irakasle, ikasle eta gurasoen artean. Kasu, posta elektronikoa, aplikazioak... Laburbilduz, teknologia ia egunero erabiltzen da eskoletan, bai ikasteko, bai komunikatzeko eta baita lana antolatzeko ere.

Duela urte batzuk, eskoletan ohikoena zen boligrafoa, koaderno eta liburuak erabiliz irakastea. Gaur egun, ordea, teknologiaren

gorakadaren ondorioz, mundu osoko ikastetxeen %70etan erabiltzen dira baliabide digitalak ikasterakoan. Herrialde garatuei dagokienez, hezkuntza-zentroetako %90ak teknologia erabiltzen dute. Europa eta Ipar Amerika dira teknologiaz gehien baliatzen diren eskualdeak (garatuenak direlako) eta Hego Amerikan ere tresna digitalen erabilera etengabe hazten ari da. Afrikan eta Asian, berriz, eskola askok oraindik ez dute interneterako sarbiderik. Egia da, teknologiak informaziorako sarbidea asko erraztu duela: zerbait bilatu behar bada, Googlen informazioa bilatu eta iturri desberdinetako eduki ugari aurki ditzakegu.



Adimen artifiziala hezkuntzan: onura ala arriskua?

Adimen Artifizialak aukera handiak eskaintzen ditu hezkuntzan, adibidez txatbotak edo laguntzaile birtualak erabiltzeak. Honen adibide ezagun bat ChatGPT izan daiteke, teknologia berri honek ikasleei eta irakasleei galderak azkar erantzuteko edo laguntzeko aukera ematen du. Bientzako onuragarria da, izan ere, ikasleak etxeko lanetan zailtasunak baditu, laguntzaile birtualak azalpenak edo erantzunak eskainiko dizkio irakasleari itxaron gabe. Gainera, IA-k azterketak zuzentzeko edo sortzeko aukera ematen du, abantaila handiak eskainiz.



Hala ere, adimen artifizialak bere arriskuak ere baditu: horietako bat langabezia gertatzea izan daiteke. Hau, modu desegokian edo gehiegi erabiltzean gertatu daiteken arriskua da eta etorkizunari begiratzuz ondorio kaltegarriak ekarri ditzake.



Beste arrisku bat, ikasleen ongizate psikologikoa izan daiteke, izan ere, eskoletan inteligentzia asko erabiltzen bada, etengabe ikusi edo ebaluatuak sentitu daitezke. Honen bidez, estresa edo antsietatea garatu daiteke ikasleen ongizatea okertzeko aukera gehiago sortuz.

Azkenik, oso ohikoa da erabilera desegoki batekin jokatzea, eta ondorioz ikasleek haien kabuz pentsatzeko ahalmena galtzeko aukera handia dago.



Hezkuntzaren etorkizuna

Hezkuntzaren munduan teknologiak aurrerapen asko eduki ditu, baina jarraituko ahal dute aurrerapen horiek? Nolakoak izango dira eskolak hamar urte barru? Teknologiak agian gero eta botere gehiago hartuko du gure egunerokoan, baina lehen erabiliak ziren ohiturak jarraituko ahal dute erabiliak izaten? Edo dena ordenagailuen bidez izango da? Galdera asko sortzen dira gure buruan gai honi buruz, eta oraingoz ez dugu erantzun zehatzik. Agian hipotesiren bat ateratu dezakegu, eta gure iritzia da, teknologiak mundua guztiz aldatuko duela, iraganeko ohiturak desagerraraziz.



“Gaur egungo teknologiak nahiko onuragarriak dira modu egokian erabilia”

Gorka Matute Arroyo, informatikaria

Gorka Matute Arroyo informatikaria da Aita Larramendi ikastolan eta teknologiarekin duen harreman estua ikusita, egokia iruditu zaigu eskolan teknologiak duen eraginari buruzko hainbat galdera egitea:

Zure ustez eskoletako teknologiaren erabilera onuragarria da?

Azkenean, teknologiak laguntzen digu informazio gehiago eta modu azkarrago batean kudeatzeko eta erabiltzeko, eta horrek aukerak ematen dizkigu ikasle bakoitzak bere erritmoan lan egiteko, eta bueno gaur egungo teknologiak nahiko onuragarriak dira modu egokian erabilia.

Teknologiak irakasleen lana errazten edo zailtzen du?

Ba beno, bi aldeak ditu: errazten du informazio asko eskuratzeko aukera ematen duelako eta baliabide asko erabiltzeko aukera ematen digulako, baina beste aldetik, horrek eskatzen du prestakuntza eta erabiltzen jakitea. Eta orduan momentu batzuetan irakasleei kosta egiten zaizkigu teknologia batzuk edo baliabide batzuk erabiltzea, eta horrek ere bere zailtasuna badauka. Orduan pixka bat zailagoa da hasieran, baina gero ondo kontrolatuta lana errazten du.

Nola uste duzu teknologiak aldatu duela irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua?

Ba bueno, asko aldatu duela iruditzen zait, lehen bakarrik liburuetan eta irakaslearen ahotan zegoen informazioa eta gaur egun ikasleak informazioa edozein tokitatik eskuratu dezakete, ordun irakaslearen lana gehiago da ba gidaria, laguntzailea edo bideratzailea, lan horiek aurrea eramateko informazioa orain eskuragarri dago edozein tokietan.

Teknologiak distrakzio gehiago sortzen dituela iruditzen zaizu? Nola saihestu daiteke hori?

Teknologiak daukan arazoa da ba bai lanerako zein entretenimendurako edukiak, sare sozialak edo informazioa ordenagailutan edo telefono mugikor berdinetan daudela, ordun ba ikasleentzat normala da ba lanean egonda eta distrakzioa hor eskura edukita hori egitea, ordun ba hori ikasketa bat da ikasleak ikasi behar dute lana eta entretenimendua bereizten. Eta jakin behar dute lanean daudenean lanean daudela eta bere aisialdian daudenean aisialdian daudela, horrek denbora behar du, horretarako guk lagundu behar diegu eta denon aldetik lan hoberena egin behar dugu.

Zein dira teknologiaren erabileraren abantaila nagusiak hezkuntzan?

Alde batetik, ikasleen ikuspegitik gaitasun digitalak garatzea, konpetentzia digitalak, hau da, ikasleak probatu behar dute gailu digitalekin, teknologia berriekin eta gaitasun gehiago garatu behar dituzte. Beste aldetik, ikaskuntza pertsonalizatuta egiteko aukera ematen du, informazio pila bat eskuratzeko aukera ematen dute. Eta komunikazio eta lankidetzaren ere asko errazten dute edozein tokitan dauden ikasleekin, etxean daudenekin edo beste herrialdeetan dauden erakundeekin harremanetan jartzeko aukera ematen dute. Beraz, horrekin nik uste dut horiek direla abantaila nagusiak.

Lehengo irakaskuntza metodora bueltatzeko aukera ematen balute, zer aukeratuko zenuke?

Egia da zaila dela, lehengo irakaskuntza metodora bakarrik bueltatzea ba adibidez oraindik oso erabilgarriak dira ba ez dakit, eskuzko idazketak, ba hor nutrizidadea... Eta lantzen dira beste aspektu batzuk: ahozko azalpenak ba oso erabilgarriak dira eta ahoz hitz egitea eta komunikatzea... Hori ere pixkat ba ordenagailuekin eta mugikorrekin ba kosta egiten da eta orduan aurkezpenak eta ahozko azalpenak ere oso erabilgarriak dira eta paper euskarrietan lan batzuk egitea komeni da ba hori ere erabilgarria delako. Orduan nik igual ez nuke atzera buelta egingo, baina iruditzen zait teknologia berriak eta lehengo irakaskuntzak elkarrekin ba ondo funtzionatu dezaketela.

Zer eboluzio ikusi duzu ikastola barnean teknologiarekiko?

Eboluzio handi bat, lehen agian ordenagailuak puntualki erabiltzen ziren ikasketa prozesuaren osagarri bezala, lanean zeuden ikasleei “goazen ordenagailua hartzera lan bat egiteko” eta gaur egun oso integratuta daude Croombookak, proiektoreak, aurkezpenak, interneta, informazioa bilatzeko, komunikatzeko, Gmail etab. Batez ere azken 10-15 urteetan bilakaera oso handia izan da eta hori da gaur egun daukaguna eta horrekin aurre egin behar dugu etorkizunean.



Gorka Matute Arroyo



Gorkaren elkarrizketa
